


KOLONBIAKO BAKE PROZESUA. Presidenteak apirilaren 10a arte luzatu du gune neutrala indarrean egoteko epea, matxinoekin menia ituntzeko egutegia zehaztu ostean. Nazioartekoak zuzeneko parte-hartzea izango du bihar hasiko diren negoziazioetan.

Gatazka gutxitu eta su-etena ezartzeko negoziatuko dute FARCEk eta Pastranak

Apirilaren 7rako menia indarrean jartzeko akordioa lortu beharko dute gerrilla taldeak eta Gobernuak



LUIS ACOSTA / EPA

Kolonbiako bake ordezkari Camilo Gomez (ezkerrean) FARCEko agintari Raul Reyesekin bake akordioa sinatzen, igandean.

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Gatazkaren intentsitatea gutxitu eta su-etinari bide emango dioten negoziazioak itundu zituzten FARC Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak gerrilla taldeak eta Gobernuak igandean, bake prozesua salbatzeko azken ordua arte egindako bileretan. Helburuak lortzeko egutegi bat zehaztu zuten, eta asteazkenean bertan hasiko dira bi aldeetako ordezkariak lehen bilkurak egiten.

Menia ezartzeko urratsak zehaztea zen Andres Pastrana Kolonbiako presidenteak eremu neutrala kontrolpean izaten jarraitzeko FARCi jarritako baldintza nagusia. Hori ituntzeko epea igandean amaitzeaz zenean akordioa lortu zen, eta Pastranak apirilaren 10a arte luzatu zuen matxinoak 42.000 kilometro koadroko gune desmilitarizatuan gelditzeko baimena.

Itundutako kronogramaren arabera, otsailaren 2an hasiko dira aldeak su-etena ezarri aurretik gatazkaren intentsitatea gutxitzeko moduen inguruko proposamenak aurkezten. Negoziazio mahaia asteazkenetik ostiralera bilduko da astero, eta apirilaren 7rako menia indarrean jartzeko akordioa lortu beharko da. Su-etenez gain, bahiketen eta paramilitarismoaren auziak ere negoziazio mahaia oinarritzko eztabaidagaiak izango dira. Gerrillak jadanik iragarri du aurrez sinatutako akordio bati eutsi eta bahiketak etengo dituela.

Pastranak esan zuenez, FARCEk eta Gobernuak negoziatzen eman dituzten hiru urteetan sinatutako akordioen eta igandekoan itundutakoaren arteko desberdintasun nagusia da azken horretan negoziazioek aurrera egitea bermatuko duen egutegia zehaztu dela. «Akor-

dio zehatza da, su-etena lortze bideratuko den eta data zehatzak dituen prozesuari bide ematen diona», adierazi zuen matxinoekin negoziatzen egon zen bakerako ordezkari Camilo Gomezek.

Nazioartearen parte-hartzea

FARCEn eta Gobernuaren arteko bake prozesuaren azken krisiari —orain arteko larriena— irtenbidea emateko ahaleginek emaitza onak izatea ahalbidetu duten nazioarteko ordezkariak negoziazioetan parte-hartze zuzena izatea itundu zuten matxinoek eta Bogotak. Hala, akordioak egiaztatu eta prozesuan ager daitezkeen oztopoak gainditzeko balioko duen nazioarteko batzorde bat eratzea hitzartu zuten aldeek. «Kolonbiako bakea lortzeko benetako aukera izango du behingoz», adierazi zuen bake negoziatioak salbatzeko zuzeneko ahale-

ginak egin dituen Nazio Batuen Erakundeko ordezkari James Lemoynek. Otsailaren 6an eratu da nazioarteko batzordea.

Nazioarteko ordezkariak gain, Kolonbiako hautagai presidentzialari, alderdi eta mugimendu politikoei eta Bakerako Batzorde Nazionalari ere negoziazioetan parte hartzeko gonbita egin diete matxinoek eta Gobernuak. Gerrillarekin gune neutralean biltzeko prest agertu dira hautagai gehienak.

Bien bitartean, eraso gehiago egin zituen FARCEk atzo Kolonbia iparraldean. Cesarko Aguas Blancas herriko kuartelaren aurka egindako ekintzan polizia bat eta zibil bat hil ziren. Metan polizia bat hil zuten, eta argindarra ekoizten duten sei dorre ezandarazi zituzten matxinoek, eta Quipilen beste polizia bat hil zuten. Jadanik 11 dorre zartarazi ditu FARCEk azken astean.

AKORDIOA

Akordio eta data zehatzak

Hau da FARCEk eta Kolonbiako Gobernuak su-etena indarrean jartzeko urtarrilaren 20an sinatutako ituna:

BIDEAK. Menia indarrean jartzeko modua aztertzen hasiko da negoziazio mahaia.

PARAMILITARISMOA ETA BAHIKETAK. Bi auzi horiek su-etena indarrean jartzeko eztabaiden oinarrian izango dira.

PROPOSAMENAK. Gatazkaren intentsitatea gutxitzeko egitasmoak aurkeztuko dira.

SEKTORE POLITIKOAK. Kolonbiako hautagai presidentzialak, alderdi eta mugimendu politikoak eta Bakerako Batzorde Nazionala negoziazioetan parte hartzera gonbidatuko dituzte aldeek.

NAZIOARTEKO BATZORDEA.

Akordioak egiaztatu eta oztopoak gainditzeko ardura izango duen nazioarteko batzordea eratuko da.

TXOSTENAK. Negoziazioen inguruko agiriak aurkeztuko dizkiote aldeek iritziz publikoari hilabetero.

KRONOGRAMA. Gatazkaren intentsitatea gutxituta, apirilaren 7rako meniari buruzko akordio zehatzak lortzea da negoziazioen xedea. Kronograma honi jarraituko zaio:

- otsailaren 2a: gatazkaren intentsitatea gutxitzeko lehen proposamenak aurkeztuko dira.
- otsailaren 20a: aldeek meniari buruz aurkeztutako egitasmoak aztertuko dira.
- apirilaren 7a: su-etinari buruzko akordioa sinatu beharko dute aldeek.